

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

86/2026 Foru Agindua, otsailaren 19koa. María Epelde Bilbao idazkari-kontuhartzaile kargutik kentzea, Arabako Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako Udalen Elkarteko bitarteko izendapena duena, lanpostua behin betiko bete delako

Urtarrilaren 13ko 12/2025 Foru Aginduaren bidez, María Epelde Bilbao bitarteko izendatu zen Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

2026ko urtarrilaren 27ko EHAAn (17. zk.), Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2026ko urtarrilaren 22ko agindua argitaratu zen, zeinaren bidez Xabier Sáinz de la Maza Bilbao izendatzen baita estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen eskalako karrerako funtzionario, eta lehen destinoa esleitzen baitzaio Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako Elkartean.

2026ko otsailaren 11ko idazkiaren bidez, elkarteko lehendakariak jakinarazi zuen funtzionario horrek 2026ko otsailaren 16an hartuko zuela kargua, eta gaur egun lanpostua betetzen ari den bitarteko funtzionarioa kargutik kentzeko eskatu zuen, aurre-aurreko ondorio datarekin.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Aipatutako martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 54. artikulua ezartzen duenez, lanpostua behin betiko hornitzeak, baldin eta lanpostua behin-behineko edo bitarteko funtzionarioek betetzen badute, automatikoki ekarriko du lanpostu hori betetzen ari zena kargutik kentzea.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hama-hirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, horrenbestez

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Epelde Bilbao Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostutik kentzea, urtarrilaren 13ko 12/2025 Foru Aginduaren arabera bitarteko izendapenez betetzen baitzuen lanpostua, 2026ko otsailaren 15etik aurrerako ondorioekin, behin betiko izendapenaren bidez bete delako lanpostu hori.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Mañuetako, Samaniegoko eta Eskuernagako Udalen Elkarteari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, dagozkion ondorioak izan ditzan, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bi-deari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 19a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA